

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

Oinarrizko dimentsioa: Informazioaren tratamendua

Ikasketa Planean adierazitakoa: Lanaren munduko informazio garrantzitsua zuzen biltzea, hautatzea eta aztertzea, eskuratutako lengoia teknikoan oinarrituta.



1. maila: Informazioaren tratamendua gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Informazio beharrak zehaztea eta estrategia egokiak erabiltzea informazio hori era gidatuan aurkitu, prozesatu eta ekoizteko.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|--|
| Bilatu behar dituen informazio iturriak identifikatzen ditu. | Erabili behar dituen iturri guztiak argi identifikatzen ditu. |
| Informazioa lortzeko metodoak ezagutzen eta erabiltzen ditu. | Informazio mota bakoitza lortzeko metodo eraginkorrenak ezagutzen eta eraginkorki erabiltzen ditu. |
| Informazioa bereizten du, irizpideak erabiltzen ditu iturriak onartzeko edo baztertzeke, eta iturri egokia hautatzen du. | Informazio egokiena hautatzen du, onartzeko edo baztertzeke irizpide baliodunak erabiliz. |
| Erabiltzen duen informazioa erregistratu edo era egokian aipatzen du. | Era egokian aipatzen ditu erabiltzen dituen informazio iturriak. |



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Lan Zuzenbidea (gaitasuna koordinatzen du), Zuzenbide Zibila eta Sozietateen Zuzenbidea.

4. ZEREGINAK

- Kasuak eta dokumentuak lantzea, informazio iturriak bilatzea eta erabiltzea, eta ariketa praktikoak ebatzea.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Lan Zuzenbidea irakasgaiak (gaitasuna koordinatzen du) kontuan hartzen du gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen du.

Lan Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez. - 2. eta 4. adierazleen balorazioak % 40 hartzen du (% 20, bakoitzak), eta 1. eta 3. adierazleenak, % 60 (% 30, bakoitzak).



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)

Gaitasuna zeregin hauen bidez ebaluatzen da: kasu erreal gatazkatsu bat lantzea, beharrezkoa den dokumentazio guztia bilduz; eta ariketa praktikoak ebaztea, arautegi, doktrina eta jurisprudentzia arloko laguntzarekin.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren notaren % 15 da.

Zuzenbide Zibila:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Informazioaren tratamendua gaitasuna IKTen erabilera gaitasunarekin batera lantzen da, eta aintzat hartzen da horretarako ikasle bakoitzak landu behar duen bloga. Arreta berezia jartzen da iturrien aipamenean, plagioaren arazoa saihesteko blogaren garapenean.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren notaren % 10 da.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna zeregin hauen bidez ebaluatzen da: planteatutako arazo juridiko-ekonomikoan aplikatu daitezkeen bibliografia eta arauak bilatzea (datu baseak, Internet), eta planteatutako problema praktikoa ebaztea, arautegi (zuzenbideko oinarria) eta doktrina arloetako laguntzarekin beti.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasunaren ebaluazioak % 10eko pisua du amaierako kalifikazioan; lehen bi adierazleak % 50ean baloratzen dira eta azken biak, beste % 50ean.

Ekonomia Politikoa, Lan Arloko Psikologia eta Lan Arloko Soziologia irakasgaiak nahita diseinatuta daude gaitasuna garatzeko, edo aukera ematen dute gaitasun hori praktikan jartzeko.

Irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea, komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduako gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. maila: Informazioaren tratamendua gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

0. Gaitasuna

Lanaren munduko informazio garrantzitsua zuzen biltzea, hautatzea eta aztertzea, eskuratutako lengoia teknikoan oinarrituta.

1. MENDERATZE MAILA

Informazio beharrak zehaztea eta estrategia egokiak erabiltzea informazio hori era gidatuan aurkitu, prozesatu eta ekoizteko.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|--|--|
| Informazio beharrak identifikatzen ditu. | Informazio beharra galdera zehatz eta argi baten bidez adierazten du. |
| Informazio iturri egokienak identifikatzen eta hautatzen ditu. | Gutxienez 3-5 iturriren artean hautatzen du ikerketa galdera bakoitzari erantzuteko. |
| Zuzen argudiatzen du eta zuzen adierazten ditu arrazoibideak. | Argudioak era argi eta koherentean eta osoki adierazten ditu. |
| Informazioa era egokian aurkezten du. | Ondorioak era erakargarri eta ulargarrian aurkezten ditu, ordena logiko bati jarraituta eta garrantzitsuena nabarmenduz. |



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA EBALUATZEKO ETA KALIFIKATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I.

Kalifikatu ez arren, gaitasuna garatzeko lagungarriak diren beste irakasgai batzuk: Enpresen Kudeaketa I; Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa; Kontabilitaterako Sarrera; eta Ekonomia eta Ogasun Sistema.

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Kasu praktikoak irakurtzea eta ebaztea, eta epaiak aztertzea eta oinarritzea. Iturri juridiko esanguratsuak hautatzea eta txostenak egitea.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I irakasgaiak (gaitasuna koordinatzen du) kontuan hartzen du gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeke orduan erabiltzen du.

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea:

Adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran irakasgaiaren blogean ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna zeregin hauen bidez ebaluatzen da:

- Kasu praktikoak irakurtzea eta ebaztea. Epaiak irakurtzea, aztertzea eta azaltzea.
- Iturri juridiko esanguratsuak eta aplikagarriak hautatzea.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

- Kasu praktikoen ebazpena faktikoki eta juridikoki oinarritzea.
- Txostenak lantzea. Ahoz eta idatziz azaltzea.

Adierazle bakoitzak % 25eko pisua du, eta gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisu globala % 90ekoa da.

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, informazio tratamenduari dagokionez menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. maila: Informazioaren tratamendua gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA


Informazio beharrak zehaztea eta estrategia egokiak erabiltzea informazio hori era autonomoan aurkitu, prozesatu eta ekoizteko.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| Gai nagusia identifikatzen du. | Hasierako Galderari lotutako gai nagusiak zalantzarik gabe identifikatzen ditu, baita horiek aztertzeke jakintza arlo nagusiak ere. |
| Ikerketa plan bat eraikitzen du. | Ordena logiko eta egoki bat ezartzen du gaiaren alderdi bakoitza esploratzeko. |
| Informazio iturriak egoki identifikatzen eta erregistratzen ditu. | Kontsultatutako iturrien oinarritzko datuak zehazten ditu: antolakuntza, egilea, helburuak, URL, etab. |
| Informazioa ulertzen du. | Ondorioak eta arrazoibideak bere hitzekin idazten ditu, lortutako informaziotik abiatuta. |
| Zuzen argudiatu eta zuzen adierazten ditu arrazoibideak. | Argudioak era argi eta koherentean eta osoki adierazten ditu. |
| Informazioa era egokian aurkezten du. | Ondorioak era erakargarri eta ulergarrian aurkezten ditu, ordena logiko bati jarraituta eta garrantzitsuena nabarmenduz. |



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. IRAKASGAIAK

Laneko Osasuna eta Prebentzioa (gaitasuna koordinatzen du), Lan Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Gai teorikoak eta kasu praktikoak lantzea eta aurkeztea/defendatzea, bakarka eta taldean.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Laneko Osasuna eta Prebentzioa eta Lan Ekonomia irakasgaiak kontuan hartzen dute gaitasun hau beren ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen dute.

Laneko Osasuna eta Prebentzioa (koordinatzailea)

Ikasturtearen hasieran adierazten den moduan, irakasgaiak adierazle guztiak ebaluatzen ditu, bi eratako zereginen bidez: alde batetik, erakunde ofizialetako informazio teknikoa bilatzea eta kontzeptuak tratatzea (ebaluazio jarraituaren % 15 eta % 25, hurrenez hurren); bestetik, lan bat idaztea (7-10 or.) eta denbora jakin batean jendaurrean ahoz azaltzea (ebaluazio jarraituaren % 70). Hori guztia amaierako notaren % 25 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)

Lan Ekonomia

Gaitasunaren adierazle guztiak ebaluatzen ditu proiektuaren aurkezpena oinarri hartuta (amaierako kalifikazioaren % 60), notaren 1/3ren haztapenarekin.

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II

Adierazle guztiak ebaluatzen dira, zeregin honen bidez: iturri arau-emaileak eta bibliografikoak bilatzea gai jakin bati buruzko ikerketa lan bat egiteko. Gaitasunaren ebaluazioa, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen dena, irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 15 da (kalifikazio osoaren % 20).

Irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunari dagokion menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

4. maila: Informazioaren tratamendua gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Informazio beharrak zehaztea eta estrategia egokiak erabiltzea informazio hori era guztiz autonomoan aurkitu, prozesatu eta ekoizteko.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|--|--|
| Informazioa eta dokumentazio lana behar dituzten gaiak identifikatzen ditu. | Dokumentazio lana behar duten gaiak zalantzarik gabe identifikatzen ditu, eta beharrezko informazioa lortzeko bide egokiak ezagutzen ditu. |
| Informazio iturri egokienak identifikatu eta hautatzen ditu, eta era egokian erregistratzen ditu. | Informazioa lortzeko metodo eraginkorrenak ezagutzen eta erabiltzen ditu, eta dokumentazioa ordena logikoan eta egoki biltzen du. |
| Erabiltzen duen informazioa ulertzen du . | Ondorio egokiak ateratzen ditu hautatzen duen dokumentaziotik. |



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Auditoretza Soziolaborala

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Ikasle bakoitzak egingo duen auditoretza soziolaboraleko txostenean, bere iritzi teknikoa azalduko du, enpresa lege ezarrita dauden arau soziolaboraletara egokitzen den, eta aztertutako dokumentazioak enpresak edo erakundeak aztertutako epean duen egoera soziolaborala zehazki adierazten duen, haren alderdi garrantzitsuenetan.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Gaitasuna aipatutako adierazle guztiak oinarri hartuta ebaluatzen da, ikasturte hasieran Moodle plataforman argitaratzen diren ebaluazio matrizeen bidez.

Gaitasuna ebaluatzeke zereginari dagokionez, auditoretza soziolaboraleko amaierako txosten bat idatzi behar da, beharrezko informazioa eta dokumentazioa aukeratuta. Informazioa era egokian interpretatu, erkatu eta erregistratu ondoren, enpresa arau soziolaboraletara egokitzeari buruzko ondorioak atera eta era egokian azaldu behar dira.

Gaitasunaren ebaluazioa, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen dena, irakasgaiaren kalifikazio osoaren % 15 da.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)

Ikasleek irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunari dagokion menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduako gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)

GRAL (4. maila): Informazioaren tratamendua gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA


Estrategia egokiak erabiltzea informazioa era autonomoan aurkitu, prozesatu eta ekoizteko.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| Gai nagusia identifikatzen du. | Hasierako Galderari lotutako gai nagusiak zalantzarik gabe identifikatzen ditu, baita horiek aztertzeke jakintza arlo nagusiak ere. |
| Ikerketa plan bat eraikitzen du. | Ordena logiko eta egoki bat ezartzen du gaiaren alderdi bakoitza esploratzeko. |
| Informazio iturriak egoki identifikatzen eta erregistratzen ditu. | Kontsultatutako iturrien oinarritzko datuak zehazten ditu: antolakuntza, egilea, helburuak, URL, etab. |
| Erabiltzen duen informazioa ulertzen du. | Ondorioak eta arrazoibideak bere hitzekin idazten ditu, lortutako informaziotik abiatuta. |
| Zuzen argudiatu eta zuzen adierazten ditu arrazoibideak. | Argudioak era argi eta koherentean eta osoki adierazten ditu. |
| Informazioa era egokian aurkezten du. | Ondorioak era erakargarri eta ulergarrian aurkezten ditu, ordena logiko bati jarraituta eta garrantzitsuena nabarmenduz. |



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea (2014/04/07)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

GRAL

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Elkarrizketak egitea tutorearekin, memoria idazteko jarraipen prozesuan, aztergaiari dagokion informazioa egoki tratatuz.

GRALa epaimahaiaren aurrean azaltzea, eta haren galderari erantzutea, aztergaiari dagokion informazioa egoki erabilia.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Elementu hauek identifikatu behar dira:

- a. Adierazle guztiak ebaluatzen direla.
- b. Gaitasuna ebaluatzeako sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen dela.
- c. Gaitasuna ebaluatzeako erabiltzen den/diren zeregina/ak (labur).
- d. Gaitasunak GRALaren notan duen pisu globala.

GRAL prozesuaren balorazio txantiloia, tutoreak beteta.

Tutoreak eta epaimahaiak eginiko GRALaren amaierako txosten idatziaren balorazioa.

Epaimahairen aurrean eginiko GRALaren defentsaren eta azalpenaren balorazioa.